

EHU: 2.000tik gora ikertzaile

Euskal Herriko Unibertsitateak euskal enpresa-mundura hurbiltzeko duela urte batzuk hasitako joerari jarraitzen dio, euskal gizarteko enpresa-sektoreetan ikerketa-jarduera eta zerbitzuetakoa areagotzeko asmoz. Ikertzaileek gizartearen garapen ekonomikoan eta gizarte-ongizatekoan parte hartzeko erronka onartu dute. Hala, EHU Euskal Herriko lehen ikerketa-zentroa bilakatu da, proiektu ugarietan lan egiten duten 2.000tik gora ikertzaileekin.

Euskoiker fundazioa EHUK hainbat enpresarekin egiten dituen kontratazioez arduratzen da eta 2.000 urtean zehar guztira 158 proiektu finantzatu ditu, 344 milioi inguruko inbertsioarekin. Esan beharra dago enpresekin batera unibertsitarioek egindako ikerketa-proiektuetan fakturazioa 40 milioi pezeta gehiagokoa dela aurreko urtearekiko. Programen arabera finantzaketari buruzko analisiak agerian uzten du enpresen zuzeneko kontratuak finantzaketa osoaren %65 direla.

Programen arabera finantzaketari dagokionez, guztira 746 ekintza garatu dira eta guztira egindako inbertsioa bi mila milioi pezetatik gorakoa da. Kopuru horretatik, 1.364 milioi enpresa pribatuak finantzatu dituzte eta gainerakoa erakunde



EHUk ikerketa alorra sakontzen ari da. Argazkian, Bilboko Ingenieritza eskola.

publikoek. Enpresek gehien finantzatzutako jarduera-mota ikerketa-proiektuei lotutakoa da. Gora egin dute enpresei zuzendutako laborategien laguntza teknikoak (293 milioi pezeta), enpresetako teknikarien prestakuntzak (127 milioi) eta aholkularitza-lanak (66 milioi).

Zientziaren arloei dagokienez, ingeniarietarako lortu diren fondoen %50 biltzen dituzte, 235 proiektutan banatutako guztira mila milioi pezetako inbertsioarekin, finantzaketa pu-

blikoaren eta enpresen finantzaketaren artean. Bestalde, teknologiararen arloko arabera finantzaketan, teknologiko hutsak ez diren baina gizartearen gero eta gehiago eskatzen diren arlo batzuek garrantzia hartu dute, hala nola, azterlan eta esku-hartze sozialen arloak, eza-gutzarenak edota ondare artistiko eta kulturalarenak. Aipatu beharra dago arlo horien jarduera ekonomikoaren garrantzia, 600 milioi pezetatik gorako kontratazioa izan baitute, 1999.

urtean gai horietara zuzendutako 200 milioiekiko gehikuntza nabariarekin.

Unibertsitate berritzailea

EHUK 500 ikerketa-taldetan antolatutako 2.000tik gora ikertzaile ditu, horietatik berrehun katedradunak, irekitako 150 ikerketa-gaietan lanean, eta hogeitertetik gorako ikerketa-ibildak du zenbait esparrutan. Horri esker, Euskal Herriko le-

hen berrikuntza-zentroa da EHU. Azken urteotan Unibertsitateak ahalegin handia egin du euskal enpresa-mundura hurbiltzeko eta, jadanik, 350 enpresa daude Unibertsitate Publikoan euren konfiantza jarri dutenak garapen teknologiko berrietarako.

EHUK teknologia berrien transferentzian ikerketa-lanak egin ditu enpresa garrantzitsuentzat; adibidez, makina-erremintaren arloan ONA Electroerosión-entzat (sektoreko lehen enpresa), sektore mekanikoan (Cadenas Vicinay), ingeniarietarako (IDOM, Datalde), automobilaren sektorean (Mercedes Benz España edo Régie Renault), elektronikaren eta telekomunikabideetan (Telefonica, Euskaltel, Ikusi, ETB, Ericsson-Indelec, Fagor, Siemens) edo energiaren sektorean (Iberdrola, Elf, Shell, Repsol). Nolanahi ere, EHUren jarduera ez da industria-sektorerara soilik mugatzen. Esaterako, ondoko arlo hauetan ere egin dituzte lanak: farmazia, medikuntza, nutrizioa, animalia-teknologia eta -produktzioa, geologia, etab. Azken atal horretan, besteak beste, enpresa hauentzat egindako lanak aipa daitezke: FAES, Energiaren Euskal Erakundea, Osakidetza, Angulas de Aginaga, Beyena, Artiach, etab.

Mondragon Unibertsitatea, zuzeneko harremana enpresarekin

Sortu zenetik, Mondragon Unibertsitatearen bereizgarri nagusietakoa izan da bertako titulatuaren lan-merkatu potentziala osatzen duten enpresa eta erakundeekiko zuzeneko harremana eta lotura. Ikaslearekiko arreta eta harreman estua eta hura enpresa-munduan eta hezkuntzan orientatzea dira MUren filosofiaren eta zereginaren euskarrietakoak.

Unibertsitate honen eta enpresen arteko harremanak hainbat motatako jardueren bitartez bideratzen dira, besteak beste, ondoko hauen bidez: enpresen partaidetza Unibertsitatearen kudeaketa-organotatik, ikasketak eta lana tartekatuz, enpresetako eta ikastetxeetako praktikaldiak, etengabeko prestakuntza eta ikerketa-proiektuak.

Ikasketak eta lana tartekatzea

Mondragon Unibertsitatearen ohikoa denez, gero eta ikasle

gehiagok partekatzen dituzte ikasketak lanarekin Alecop-en (Eskolako Lan Jarduera Kooperatiboa). Enpresa kooperatibo horri esker, 3.396 ikasle ikasketak eta lana partekatu dituzte azken 5 urteetan. 1966an sortua, alde batetik, gazte guztientzako aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea du helburu eta, bestetik, ikasle lan-munduarekin zuzenean harremanetan jartzea.

Era berean, lanbide-gaitasunez gain lan-munduak gero eta gehiago balore pertsonalak eskatzen dituenez, hala nola, taldean lan egiten jakitea, harremanetan jartzea, ekimena, tolerantzia, erabakiak hartzeko ahalmena, etab., ikaslearen prestakuntza praktikoa aukera ematen dio esparru akademikoan beharbada betiere lortzen ez diren zenbait gaitasun garatzeko. Horrek, ikaslearen prestakuntzan laguntzeaz gain, diru-sarrerak garrantzitsuak ematen dio ikasketak finantzatzeko.

Bestalde, MUko ikasleek karrera-amaierako proiektu bat egiten dute inguruko enpresetako batean. Horrek aukera hobezina ematen die karreraren zehar bereganatutako ezagutzak praktikan jartzeko.

Inguruko enpresa desberdinetan praktikak egiteko aukera ere badute. Enpresa horiek ikaslearen prestakuntza-garapena aberasten laguntzen dute eta enpresa baten eta/edo ikastetxe baten antolamendua eta oinarritzeko funtzionamendua ezagutzeko aukera ematen die, Unibertsitatearen bereganatutako ezagutza teorikoak aplikatzeko abaguneaz gain.

Gero eta ikasle gehiagok egiten dituzte praktikak eta aipatu beharra dago enpresek ikasle horiei buruz oso balorazio positiboa egiten dutela. Besteak beste, komunikatzeko, harremanetan jartzeko eta taldean lan egiteko trebezia eta ekimena eta ikasteko ahalmena nabarmentzen dituzte.

Deustua, enpleguan murgilduta Prest azokan

Deustuko Unibertsitatean eskaintzen den informazio guztia lanbide-mundura bideratuta dago eta, horregatik, enpresetako ikasleen praktikaldiak bultzatzen dira, batik bat, Unibertsitate-Enpresa Arloaren bitartez. Laguntza gisa, Enpresa Ekimeneren Zentroa dauka, unibertsitateko prestakuntza lan-merkatuaren benetako premietara egokitzea eta lanbide-kezikak sustatzera bideratutakoa.

Ildo horretatik, Deustuko Unibertsitateak *stand* instituzional baten bitartez hartzen du parte Prest 2001 erakusketan. Bertan egongo diren bi ordenadoreen bidez, interesa dutenik Unibertsitatearen web orrian sartzeko aukera izango dute. Hala, bisitariak nahi duten ikasketak informazio guztia lortu ahal izango dute Fakultateen, Sailen eta Ikasketen inguruan, bai eta ikasketaz kanpokoa ere, besteak beste, Ostatuari, Nazioarteko Harremanei eta Egungo Berriei buruzkoa. Gainera Unibertsitateko azafata

eta langile batzuek (Unibertsitate Orientazioko Zerbitzukoak eta Unibertsitate-Enpresa Arlokoak) inguratzen direnei arreta eskainiko diete eta sor daitezkeen zalantzak argituko dituzte. Deustuko ordezkari horiek bisitariak modu pertsonalizatuan orientatuko dituzte eta berkei, ikasketei, matrikulazioaldiari, Jardunaldi Irekiei eta Unibertsitatearen zerbitzuei buruzko informazioa emango diete.

Bestalde, azaroaren 9ko 17:00etan, Aranzazu aretoan, *Deustuak lana eskaintzen du* izeneko hitzaldia egingo da. Bertan, prestakuntzaren eta enpresaren arteko lotura azpimarratuko da maila guztietan, gradu aurrekoan, gradu ondokoan, etengabeko prestakuntzan eta zuzendarien prestakuntzan, eta lanpostua lortzeko garaian horrek duen garrantzia nabarmenduko da. Era berean, Deustuko Unibertsitatearen enplegu-zerbitzuak emango dira aditzera.